

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroak enpresan geratzea zaila da, eta horretarako beharrezko metodoak erabiliko ditugu. Lehenik eta behin, azkar erantzungo diegu zure galderari eta arazoei, eta bezeroarentzako zerbitzua pertsonalizatuko dugu, bakoitzaren beharren arabera. Bigarrenik, gure produktuek edo zerbitzuek aurreikuspenak betetzen dituztela eta kalitatezkoak direla ziurtatuko dugu. Hirugarrenik, bezero leialentzako deskontuak ezarriko ditugu gure online orrian, eta gure ekitaldietarako sarbide eskusiboa eskainiko dugu. Laugarrenik, gure bezeroak informatuta edukiko ditugu posta elektronikoen eta sare sozialen bidez. Bosgarrenik, gure bezeroei buruzko datuak bilduko ditugu, bakoitzaren lehentasunetan eta beharretan arreta jartzeko. Seigarrenik, erabiltzailearen esperientzia positiboa dela ziurtatuko dugu, bai denda fisikoan, bai online dendan. Eta, azkenik, gure bezeroen interesari eusteko produktu berriak eskainiko ditugu.

Promoziok dira bezeroak geratzeko hainbat estrategiarik eraginkorrena. Izan ere, prezio lehiakorra edo merkeagoa jarriz gero, pertsona guztien interesekoa da. Beraz, deskontuak aplikatuko dizkiegu gure bezero leialenei, ekitaldi eskusibo eta entretenigarriak egingo ditugu gure bezeroentzat, urteko une bakoitzean promoziok egingo dira jendeak gehien erabiltzen dituen produktuetan, itzultzeko berme sendoak eskainiko ditugu, arazorik gabe, lasaitasuna emateko eta produktuen edo zerbitzuen konfiantza sustatzeko. Azkenik, ustekabeko sustapenekin harrituko ditugu gure bezeroak, hala nola, deskontu eskusiboak data berezietan edo, besterik gabe, haien leialtasuna eskertzeko.

Fideltasun-txartelak oso estrategia ona da bezeroak gure kasuan atxikitzeko. Programan parte hartzen duten bezeroei zer onura eskainiko dizkiegun zehaztuko ditugu. Deskontuak, doako produktuak, ekitaldietarako sarbide eskusiboa edo haientzat baliotsua den beste edozein sari izan daitezke. Txartela egiteko, diseinu erakargarria eta profesionala sortuko dugu, erraz eraman daitekeela (txikia) eta gure produktuei buruzko informazioa ematen duela ziurtatuko dugu. Txarteletik erakarrita, online dendara iritsi ahal izango dira, eta han, beste erosketak batzuekin lortutako puntuak trukatzuz, etekina aterako zaie.

Gure bezeroen beharren arabera deskontuak eta promoziok bidaliko dizkiegu egunero, guran konfiantza izan dezaten eta familiari, lagunei... gomendatzeko.